


Gazteen % 42k modu arduratsuan kontsumitzen du

Hau da [Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean](#) ikerketaren emaitza nagusia. Ikerketa hori 2013an argitaratu zuen [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Ikerketa honen helburua Euskadiko gazteriaren kontsumo ereduak aztertzea izan zen, betiere kontuan izanda nola, zer eta zenbat kontsumitzen duten gazteek. Halaber, identifikatu nahi izan zen ea gazteek dakiten norbanakoarentzat eta gizarte zein ingurumen mailan zein inplikazio dituen edozein produktu edo zerbitzu kontsumitzeak.

Kontsumo arduratsua kontzeptua, benetako beharrei egokitzen diren kontsumo ohiturekin lotuta dago, eta horiek ingurumena zaintzen eta gizarte berdintasuna lortzen laguntzen dute. Arau horiekin, Kontsumo Arduratsua Indizea kalkulatzeko ondokoak baloratuko dira: gazteen kontsumoaren arrazionaltasuna, etika, iraunkortasuna eta praktika alternatiboak.

Azterketaren arabera, erdi-goiko kontsumo arduratsua egiten duten gazteak % 42 dira (% 14k goi-mailako kontsumo arduratsua dute % 28k erdi mailakoa eta % 58k behe mailakoa).



Ikerketak Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri batek telefonoren bidez galdera-sorta bati emandako erantzunak hartu ditu oinarri. Galderak Gazteen Euskal Behatokiak prestatu ditu, baita analisia egitearen eta txostena idaztearen arduraduna izan ere.

Argitaratutako liburua eskura dago Gazteen Euskal Behatokiako Dokumentazio Zentroan. Eskatuz gero, [ale bat bidaliko dizuegu doan](#) interesa adierazten duzuen guztioi.

[Gure Dokumentazio Zentroak](#) fondo bibliografiko zabala du, ia 4000 monografia eta gazterian espezializatutako 80 aldizkari inguru biltzen baititu. Zentro hori zerbitzu publikoa eta doakoa da eta [Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen](#) barruan dago.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

